IRAURGI BERRITZEN



ZURE ENPRESA

testuinguru ekologiko, sozial eta teknologiko-digital berrira egokitzeko unea iritsi da

Aurkibidea

01. Trantsizio ekologikoa

Neurtu zure ingurumen-aztarna eta eraldatu enpresa datu errealetan oinarrituta 3

Murriztu zure enpresaren gastu energetikoak, diagnostiko eta ekintza plan eraginkor batekin 4

BasquESG: ezagutu zure enpresaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna sustatzeko ekimena 5

02. Trantsizio soziala

Talentu inklusiboa duten negozio zirkularrak bultzatu 6

Neurtu eta hobetu zure taldearen helburua eta motibazioa 7

Pertsonen kudeaketa zure funtsezko abantaila estrategikoa bihurtu 8

Aktibatu zure enpresan benetako eragina duen pertsonen kudeaketa estrategikoa 9

Enpresetan euskararen erabilera eta inplantazioa 10

03. Trantsizio teknologiko - digitala

ETE DIGITALA. Eraldaketa Digitalaren bidez, lehiakortasuna indartu 11

Ezagutu nola erabili AA sortzailea modu praktikoan zure egunerokotasunean 12

BETEK - Lehiakortasuna bultzatu Berrikuntza Teknologikoaren bidez 13

Eraldaketa digitalean aurrera egiteko tresnak eta laguntzak 14

Adimen artifiziala eta konputazio kuantikoa: aplikazioak, aukerak eta finantzaketa 15

Ezagutu nola erabili AA sortzailea modu praktikoan zure egunerokotasunean 16

TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

Neurtu zure ingurumen-aztarna eta eraldatu enpresa datu errealetan oinarrituta

Kalkulatu, ulertu eta hobetu zure enpresaren ingurumen inpaktua. Prestakuntza, diagnostiko teknikoa eta aholkularitza pertsonalizatua jasoko dituzu tresna ofizialen bidez, zientzian oinarritutako klima-kudeaketa estrategiko baterantz aurrera egiteko.

NORENTZAT

→ Jasangarritasunarekin eta eraldaketa klimatikoarekin konprometitutako enpresa industrialentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Enpresaren ingurumen-inpaktuaren inbentario osoa.
- Ingurumen-aztarna kalkulatzeko formakuntza praktikoa.
- 3C tresna ofizialaren erabilera gidatua (Ihobe).
- Txosten teknikoa emaitzekin eta hobetzeko proposamenekin.
- Adituen laguntza prozesuaren fase bakoitzean.

Proiektu honek formakuntza, tresnak eta euskarri teknikoa eskaintzen dizkie industria enpresei, ingurumen aztarna modu zorrotz eta praktikoan neurtzeko. Ihobeko 3C tresnaren erabilerarekin eta aditu baten laguntzarekin,

txosten pertsonalizatua eta hobetzeko gomendioak jasoko dituzu, baita datuen fidagarritasuna landu ere. Aukera paregabea klima aldaketari aurrea hartzeko eta benetako inpaktua duen zure enpresa-posizionamendua indartzeko.

IKASEKIN | PROIEKTUA

Aurrez arrekoa (Basazabal Jauregia) eta online

Ekaina – urria 2026



Ana de la Puente
IK Ingenieria



Gorka Arroyo
IK Ingenieria

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

Murriztu zure enpresaren gastu energetikoak, diagnostiko eta ekintza plan eraginkor batekin

Industria enpresei zuzendutako programa tekniko-praktikoa: banakako energia-diagnostikoa, adituen aholkularitza eta hobekuntzak aplikatzeko prestakuntza praktikoa. Bultzatu trantsizio energetikoa modu estrategikoan, gastuak murriztuz eta energia eraginkortasuna hobetuz.

NORENTZAT

- Efizientzia energetikoa hobetzea bilatzen ari diren enpresa industrialentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Diagnostiko energetiko tekniko eta pertsonalizatua.
- Kontsumoak eta kostuak murrizteko neurri bideragarriak.
- Autokontsumo fotoboltaikorako proposamen eta gomendioak.
- Adituen laguntza inbertsio erabakietan.
- Prestakuntza praktikoa hobekuntza proposamenak ezartzeko.

Energia kontsumoak eta kostuak murrizteko diagnostiko eta ekintza plan pertsonalizatua, energia efizientzia hobetzeko eta autokontsumo aukerak ebaluatzeko, besteak beste. Bisita teknikoak, txosten xehatua gomendioekin eta hobekuntza proposamenak ezartzeko prestakuntza praktikoa barne. Aktibatu zure enpresaren jasangarritasun energetikoa adituen laguntzarekin, lehiakortasuna eta trantsizio energetikorako konpromisoa indartuz.

IKASEKIN | PROIEKTUA

Aurrez aurrekoa enpresan

Iraila - azaroa 2026

Zehazteko

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

BasquESG: ezagutu zure enpresaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna sustatzeko ekimena

IIndustria-enpresentzako online saioa. Ezagutu IHOBEk sustatutako BasquESG ekimena. Euskadiko ETEen jasangarritasuna ebaluatzeko ekimena, industria-enpresei bereziki zuzendua. Ekimenaren planteamendua eta nondik norakoak, nahiz parte hartzeko modua zuzenean ezagutzeko aukera izango duzu.

NORENTZAT

→ Eskualdeko enpresei, bereziki jasangarritasunean aurrera egin nahi duten industria-ETEei. Saioa zuzendaritzako pertsonei eta jasangarritasuneko, ingurumeneko, kalitateko edo finantzetako arduradunei zuzenduta dago, baita bezeroen eta finantza-erakundeen informazio-eskaerei erantzuten dietenei ere.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- BasquESG zer den ulertzea eta zure enpresari zer ekarpen egin diezaiokeen ezagutzea..
- Jasangarritasunaren ebaluazioa nola planteatzen duen ezagutzea, baita kanpo-egiaztapena eta beste enpresekiko alderaketa ere..
- Prestakuntzarako eta laguntza jasotzeko baliabideak ezagutzea, ekimenak ebaluazioa eta hobekuntza bultzatzeko aurreikusten dituenak.
- Ekimenarekin bat egiteko moduari buruzko informazioa jasotzea eta zure zalantzak IHOBEri zuzenean planteatzea.

Parte hartu saioan eta BasquESG ekimena IHOBEren eskutik ezagutzeaz gain, ulertu zure enpresari zertan lagun diezaiokeen: jasangarritasuna ebaluatzen eta hari buruzko informazioa prestatzen, EFRAGek garatu eta Europako Batzordeak gomendatutako VSME estandarraren arabera. Halaber, hobetzeko aukerak identifikatzen eta bezeroen zein finantza-erakundeen ingurumenari, gizarteari eta gobernantzari (ESG) buruzko informazio-beharrei erantzuten nola lagun dezakeen ezagutzeko aukera izango duzu.

IKASIZ SAIOA

Online

2026, Azaroak 18



Gorane Ibarra
IHOBE



Baltasar Caballero
BESA

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO SOZIALA

Talentu inklusiboa duten negozio zirkularrak bultzatu

UE Inklusivity Proiektua. Urola Erdian abiatu den proiektu ekimen berria: ezagutu nola txertatu ekonomia zirkularrean trebatutako talentua, eragin sozial positiboa sortu eta inklusioa eta jasangarritasuna uztartzen dituen proiektu berritzaile batean parte hartu.

NORENTZAT

→ Ekonomia zirkularrean eta gizarteratzean konpromisoa duten enpresa industrialentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Proiektuaren helburuak ezagutzea.
- Talentu zirkularra sartzeko aukerak identifikatzea.
- Programan parte hartzearen inguruko zalantzak argitzea.
- Zure enpresarako gizarte-onurak eta estrategikoak deskubritzea.
- Proiektu pilotuan parte hartzeko interesa baloratzea.



Parte hartu UE Inklusivity egitasmoan (enpresak ekonomia zirkularrean eta jasangarritasunean prestatutako pertsonak konektatzen dituen ekimen inklusiboa). Ezagutu nola bete zure talentu-beharrak, proiektu zirkularrak bultzatu eta gizarteratzean zein tokiko garapen ekonomikoan nola lagundu.
Helburuak, onurak eta enpresa parte-hartzaile gisa nola batu zehatz-mehatz azalduko dizkizugu. Gaur egun enpresekin aurrez aurreko banakako bisitak ospatzen interesak baloratzeko.

IKASEKIN | PROIEKTUA

Aurrez aurrekoa enpresan

Urtarrila - abendua 2026

Maria Angélica Martinez
Sutargi

Xabier Lekuona
Sutargi

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO SOZIALA

Neurtu eta hobetu zure taldearen helburua eta motibazioa

Zure langileen autonomia, gogobetetzea eta lan-asmoa ezagutzeko diagnostiko praktikoa. Datu objektiboak, txosten argia eta benetako ekintza plana lortu zure antolamendu giroa eraldatzeko.



Parte hartu programa honetan eta neurtu zure enpresan lanaren zentzua Mondragon Unibertsitateko Zentzulan tresnaren bidez. Ezagutu zure langileak nola sentitzen diren, identifikatu hobekuntza errealistak eta diseinatu ingurune motibatzaileago eta gizatiarrago bat. Diagnostiko zorrotz bat jasoko duzu, gomendio praktikoak eta aldaketa eraginkorrak ezartzeko adituen laguntza.

NORENTZAT

→ Ongizatearekin, klimarekin eta barne-jasangarritasun sozialarekin konprometitutako enpresentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Helburua, autonomia eta lan-gogobetetasuna neurtzeko diagnostiko osoa.
- Emaitzak eta lehentasunezko hobekuntza-eremuak jasotzen dituen txosten argia.
- Autonomia, motibazioa eta lan-giroa indartzeko proposamen praktikoak.
- Prozesu osoan zehar aholkularitza tekniko espezializatua.
- Lan-kultura eraldatzeko bide-orri pertsonalizatua.

IKASEKIN PROIEKTUA

Aurrez aurrekoa enpresan

Otsaila - abendua 2026

Iraurgi Berritzen

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO SOZIALA

Pertsonen kudeaketa zure funtsezko abantaila estrategikoa bihurtu

Enpresaren Estrategia definitu eta hedatzean, Pertsonen Zuzendaritzak izan behar duen rol estrategikoa, eta nola talentua erakarri, fidelizatu eta garatu ikasi, ikuspegi estrategiko, gizatiar eta jasangarri batetik. Saio presentzialak, dinamika kolaboratiboak, tresna praktikoak eta adituen laguntza izango dituzu, pertsonen kudeaketa benetako aldaketaren motor bihurtzeko.

1. Saioa: 2026/04/22
2. Saioa: 2026/06/16
3. Saioa: 2026/10/20

NORENTZAT

→ Urola Erdiko industria-enpresetan pertsona eta talentu arduradunei zuzendurik.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Pertsonen kudeaketan ikuspegi estrategiko eguneratua lantzeko prestakuntza.
- Talentua erakarri eta fidelizatzeko tresna praktikoak.
- Erreferentziazko kasu eta esperientziekin inspirazioa.
- Eskualdeko beste enpresekin laguntza-sarea sortzea.
- Lidergoa eta kultura antolatzailea aktibatzeko bide-orri praktikoa.



Parte hartu enpresa artean ikaskuntza partekatuan oinarritutako programa honetan, eta birpentsatu talentuaren kudeaketa ikuspegi estrategiko eta iraunkor batetik. Ezagutu nola garatu Pertsonen Arduradunen ikuspegi estrategikoa, nola hedatu enpresaren baitan eta erdi mailako arduradunen lidergoaren indartzea. Aurrez aurreko saioak, elkarlaneko dinamikak, tresna praktikoak eta adituen laguntza uztartzen ditu, pertsonen kudeaketa benetako aldaketaren eragile bihurtzeko.

IKASEKIN | PROIEKTUA

Aurrez arrekoa (Intsausti Jauregia) eta bisitak enpresetan.

Urtarrilla - abendua 2026



Ainhoa Zatarain
OPE

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO SOZIALA

Aktibatu zure enpresan benetako eragina duen pertsonen kudeaketa estrategikoa

Zure enpresan pertsonen kudeaketa aztertzeko eta hobetzeko programa praktikoa. Banakako diagnostikoa, ekintza plan pertsonalizatua, pertsonen kudeaketa estrategikoa erakundean hedatzeko prestakuntza aplikatua.

1.Saioa: 2026/09/29
2.Saioa: 2026/10/14
3.Saioa: 2026/11/10
4.Saioa: 2026/12/12

NORENTZAT

→ Pertsonen kudeaketa profesionalizatu nahi duten enpresentzat, hobekuntza eta berrikuntza proiektu praktikoak aktibatuz.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Pertsonen Kudeaketaren egungo ereduaren diagnostiko argia.
- Pertsonen funtsezko prozesuak hobetzeko proposamen praktikoak.
- Ekintza plana lehenetsitako neurriekin eta neurri errealistekin.
- Lanpostuen deskribapenak, Onboarding, klima eta lidergoaren arloko trebakuntza praktikoa.
- Hobekuntzak modu eraginkorrean ezartzeko adituen laguntza.



Parte hartu zure enpresako pertsonen kudeaketa eraldatzeko lagungarri izango den programa tekniko-praktiko honetan. Diagnostiko pertsonalizatua, egokitutako hobekuntza-proposamenak eta prestakuntza-saio espezializatuak jasoko dituzu, talentua erakartzeko, harrera-prozesuak hobetzeko, motibazioa indartzeko eta lan-giro osasuntsua sustatzeko aldaketa estrategikoak ezartzeko. Aditu-talde baten laguntzarekin, kudeaketa estrategiko, gizatiar eta eraginkorrago baterantz egingo duzu aurrera.

IKASEKIN | PROIEKTUA

Aurrez arrekoa (Intsausti Jauregia) eta bisitak enpresetan.

Ekaina - abendua 2026



Ainhoa Zatarain
OPE

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO SOZIALA

Enpresetan Euskararen erabilera eta inplantazioa

Industria-enpresentzako online saioa, euskararen erabilera lantzeko ikuspegi praktikoa eskainiz: zergatik sustatu euskara enpresan, nola abiatu edo indartu euskara-plan bat, eta zein onura ekar ditzakeen langileen inplikazioan, komunikazioan eta enpresaren lehiakortasunean.

NORENTZAT

Eskualdeko industria enpresetako zuzendaritza, pertsonen arloa, komunikazioa, kalitatea, produkzioa, administrazioa eta hizkuntza-kudeaketan interesa duten arduradunentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Euskara plan baten faseak eta prozesua ezagutzea.
- Autodiagnostikorako galderak eta orientazioa.
- Euskara Plan baten inplantazioari dagokionez, eskualdeko enpresen ibilbidea eta prozesua gertutik ezagutzeko aukera izatea
- Gaur egun dauden zerbitzuen eta diru laguntzen berri izatea.



Parte hartu industria-enpresei zuzendutako saio praktiko honetan eta ezagutu nola landu euskararen erabilera modu errealista eta eraginkorrean enpresan. Euskara-plan baten fase nagusiak azalduko dira, hasierako diagnostikotik hasi eta planifikazioa, gauzatzea eta emaitzen ebaluaziora arte. Halaber, zuzendaritzaren, arduradunen eta langileen zeregina aztertuko da, prozesua modu parte-hartzailean garatzeko gakoekin batera.

IKASEKIN | PROIEKTUA

Online.

2026, uztailak 7 (9:00-10:30)

A. Alberdi, , M. Aizpuru, A. Imaz
Alberdi Mekanizatuak, Biele Group, Elegune

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO - DIGITALA

ETE DIGITALA: Eraldaketa Digitalaren bidez, lehiakortasuna indartu

Programa praktiko eta pertsonalizatua, Urola Erdiko ETEetan eraldaketa digitalaren prozesua bizkortzeko laguntza eskaintzen duena, metodologia frogatu baten eta arrakasta-kasuak sortzeko esperientzia praktikoaren bidez.

NORENTZAT

→ Urola Erdiko industria-enpresa eta industriari lotutako zerbitzu-enpresentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Enpresaren heldutasun digitalaren diagnostikoa.
- Negozioaren hobekuntza-aukerak eta/edo barne-eraginkortasuna identifikatzea, aukera nagusia lehenetsiz.
- Bide-orri digital pertsonalizatua diseinatzea, hobekuntza-aukerarik nagusiena baliatzeko ekintza-plan pertsonalizatu bat garatuz.
- Kanpo-laguntza espezializatua prozesu osoan zehar.
- Kasu bakoitzerako erabilgarri eta egokiak diren teknologia digitalen identifikazioa.



Programa hau aukera paregabea da zure industria-ETEak digitalizazioaren arloan jauzi bat egin dezan. Saio indibidualen, adituaren laguntzaren eta lankidetza bidezko lanaren bidez, zure egungo egoera eta beharrak aztertuko dituzu, aukera teknologiko zehatzak identifikatu eta ekintza-plana izango duen bide-orri digital pertsonalizatu eta bideragarria diseinatuko duzu. Guztia ikuspegi praktikoarekin: inpaktua, efizientzia eta iraunkortasuna helburu, erabaki sendoekin hazteko, arrisku txikiagoarekin eta zure helburuekin lerrokatuta.

IKASEKIN | PROIEKTUA

Aurrez aurrekoa enpresan

Azaroa 2025 - urria 2026

Idoia Iceta,
Digitalentu

Luis Izurrategui,
Kuik

TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO - DIGITALA

IRAURGI BERRITZEN

Ezagutu nola erabili AA sortzailea modu praktikoan zure egunerokotasunean

Industria-enpresentzat diseinatutako lan saio praktikoa, AA sortzailea modu erreal eta aplikatuan erabiltzen ikasteko kasu zehatzekin eta profil ezberdinen arabera antolatuta.

NORENTZAT

→ Urola Erdiko industria-enpresetako profesional eta arduradunentzat.

- Marketina, Salmentak, Bezeroarentzako Arreta eta Post-salmenta.
- Bulego Teknikoa, Ekoizpena, Biltegia eta Kalitatea.
- Zuzendaritza Nagusia, Finantzak, Erosketak eta Berrikuntza.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- AA sortzailearen aplikazio erreala industria testuinguruan.
- Enpresan errepikagarriak diren kasu praktikoakE
- Prompt egituratu eta fintuen erabilera, zuzenean aplikatzeko prest.
- Profilez segmentatutako saioak, erabilgarritasuna areagotzeko.
- Galderak egiteko eta enpresa bakoitzaren errealitatera egokitzeko espazioak.



Adimen Artifizial Sortzailea jada ez da etorkizuneko aukera bat: industria-enpresen egungo egoera eraldatzen ari den errealitatea da, eguneroko lanean aplikatzeko aukera ematen duena.

Horregatik, industria enpresetako profil ezberdinen egunerokoan benetan eragiten dioten erabilera kasuetan sakontzeko lan saioa antolatu dugu.

IKASIZ SAIOA

Aurrez arrekoa (Basazabal Jauregia)

2026, martxoak 10



Álvaro Zevallos
Digitalentu

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO - DIGITALA

BETEK - Lehiakortasuna bultzatu Berrikuntza Teknologikoaren bidez


Berrikuntza teknologikoko proiektuak sustatu eta abian jartzeko programa praktiko eta pertsonalizatua, Berrikuntzaren Kudeaketa ikuspegi teknologikotik egituratuta ez duten enpresentzat.

NORENTZAT

→ Urola Erdiko altzari eta egur arloko enpresa industrialentzat, ahalmen teknologikoa eta berritzeko gogoa dutenei zuzendurik

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Diagnostiko teknologiko pertsonalizatua eta egokitutako bide-orria.
- Zentro teknologikoekin konexioa, prestakuntza eta funtsezko baliabideak.
- Berrikuntza oztopatzen duten eragozpenen identifikazioa.
- Jardunbide egokiak eta benetako adibideetara sarbidea.
- Bide-orri teknologiko baten bidez, lehiakortasuna hobetzea.



IKASEKIN | PROIEKTUA

Aurrez aurrekoa enpresan

Maiatza 2026 - abendua 2026

Garbiñe Manterola
BRTA

Iñigo Mujika
TKNIKA

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO - DIGITALA

Eraldaketa digitalean aurrera egiteko tresnak eta laguntzak

IRAURGI BERRITZEN


GFA, SPRI eta ZIUR-ek industria enpresen eraldaketa digitala sustatzeko abian jartzen dituzten lan lerro eta laguntzak ezagutzeaz gain, arduradunekin modu irekian hitz egiteko aukera emango duen lan saioa.

NORENTZAT

→ Eskualdeko industria enpresetako zuzendaritza, finantza eta berrikuntza arduradunak nahiz IT departamentuetako arduradunentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- GFA, SPRI eta ZIUR-ek eraldaketa digitalaren esparruan dituzten lan lerro eta laguntzak ezagutzea.
- Enpresarentzat egokiak izan daitezkeen laguntza edo lan lerroak identifikatzea.
- Lan lerro eta laguntzen arduradunekin hartueman zuzena izatea.
- Parte hartzen duten industria enpresa ezberdinen artean esperientziak partekatzea.



Lan saioan, proiektu ezberdinen enkajea aztertzeko aukera izango da, betiere sustapeneko lan lerro eta laguntzen baldintzak kontutan hartuz.

Lan saio honen bidez, eraldaketa digitala sustatzeko dauden lan lerro eta laguntza nagusien berri eman nahi zaio eskualdeko industriari.

IKASIZ SAIOA

Aurrez arrekoa (Basazabal Jauregia)

2026, apirilak 28

G. Unamuno, J. Churruca, I, Susperregi, I. Torrecilla
SPRI, GFA, ZIUR

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO - DIGITALA

IRAURGI BERRITZEN

Adimen artifiziala eta konputazio kuantikoa: aplikazioak, aukerak eta finantzaketa

Industria-enpresentzat diseinatutako lan saio praktikoa, adimen artifiziala eta konputazio kuantikoaren aukerak, aplikazioak eta finantzaketa ezagutzeko.



NORENTZAT

→ Eskualdeko industria enpresetako zuzendaritza, berrikuntza eta eraldaketa arduradunak, zein IT eta digitalizazio arduradunentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Adimen artifizialaren eta konputazio kuantikoaren aplikazio praktikoen ikuspegi orokorra ezagutzea.
- Sektore ezberdinetako enpresetan garatutako kasu errealak ezagutzea.
- Enpresetan aplikatzeko aukera posibleak identifikatzeko gida praktikoa eskuratzea.
- Proiektu hauek garatzeko finantzaketa aukerak ezagutzea.

IKASIZ SAIOA

Aurrez aurrekoa (Basazabal Jauregia)

2026, maiatzak 21 (9:00-10:30)

Amaia Vesga
Multiverse Computing

Telmo Esnaola
Multiverse Computing

IZENA EMAN!

TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO - DIGITALA

IRAURGI BERRITZEN

Ezagutu nola erabili AA sortzailea modu praktikoan zure egunerokotasunean

Industria-enpresentzat diseinatutako lan saio praktikoa, AA sortzailea modu erreal eta aplikatuan erabiltzen ikasteko kasu zehatzekin eta profil ezberdinen arabera antolatuta.

NORENTZAT

→ Urola Erdiko industria-enpresetako profesional eta arduradunentzat.

- Marketina, Salmentak, Bezeroarentzako Arreta eta Post-salmenta.
- Bulego Teknikoa, Ekoizpena, Biltegia eta Kalitatea.
- Zuzendaritza Nagusia, Finantzak, Erosketak eta Berrikuntza.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- AA sortzailearen aplikazio erreala industria testuinguruan.
- Enpresan errepikagarriak diren kasu praktikoakE
- Prompt egituratu eta fintuen erabilera, zuzenean aplikatzeko prest.
- Profilez segmentatutako saioak, erabilgarritasuna areagotzeko.
- Galderak egiteko eta enpresa bakoitzaren errealitatera egokitzeko espazioak.



Adimen Artifizial Sortzailea jada ez da etorkizuneko aukera bat: industria-enpresen egungo egoera eraldatzen ari den errealitatea da, eguneroko lanean aplikatzeko aukera ematen duena.

Horregatik, industria enpresetako profil ezberdinen egunerokoan benetan eragiten dioten erabilera kasuetan sakontzeko lan saioa antolatu dugu.

IKASIZ SAIOA

Aurrez arrekoa (Basazabal Jauregia)

2026, irailak 16



Álvaro Zevallos
Digitalentu

IZENA EMAN!